

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Dimako Udala****Dimako Udaleko Administraziaren plaza baterako karrerako funtzionarioa hornitzeko deialdiko oinarriari buruzko iragarkiaren akatsen zuzenketa.**

2019ko urtarrilaren 3an, 2 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren alean argitaratutako iragarkian, Dimako udaleko administraziaren plaza baterako karrerako funtzionarioa hornitzeko deialdiko oinarriari buruzkoan:

— *Esaten duen tokian:*

Hirugarrena. — Hautagaiek bete behar dituzten baldintzak edo betekizunak

Hautaketa probetan parte hartzeko, hau bete beharko da:

c) 3. hizkuntza eskakizunari dagokion euskara jakintza edukitzea. Deialdian eskatutako hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko, HAEEK emandako ziurtagiria, 3. hizkuntza eskakizuna edo altuagoa egiaztatzen duena eta baliokideak aurkeztea. Azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeko denak, ezartzen dituenak daude 3. eskakizunarekin baliokidetuta.

— *Esan behar du:*

c) 3. hizkuntza eskakizunari dagokion euskara jakintza edukitzea. Deialdian eskatutako hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko, HAEEK emandako ziurtagiria, 3. hizkuntza eskakizuna edo altuagoa egiaztatzen duena eta baliokideak aurkeztu, edo deialdi hone-tan horretarako aurreikusten diren probak egin ahalko dira. Azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeko denak, ezartzen dituenak daude 3. eskakizunarekin baliokidetuta.

— *Esaten duen tokian:*

Seigarrena. — Epaimahai kalifikatzailea

...Kideen artean Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak proposatuta izendaturiko kide bat egongo da.

— *Esan behar du:*

Seigarrena. — Epaimahai kalifikatzailea

...Kideen artean Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak proposatuta izendaturiko kide bat egongo da, hizkuntz eskakizunaren maila egiaztatzearen ebaluaketarako izendatu beharko diren parte hartu dutenen kalterik gabe.

— *Esaten duen tokian:*

Zortzigarrena. — Oposizio aldia

Oposizio aldiak 3 ariketa dauzka (nahitaezkoak eta baztertze indarrekoak):

a) Lehen ariketa: epaimahaiak horretarako zehazten duen denboran aukerako erantzunak dituzten galderen test bati erantzun beharko diote, idatziz. Galderak I. eranskinean adierazitako gaien edukiei buruzkoak izango dira, eta erantzun okerrekin puntu negatiboak jasoko dituzte.



Erantzun oker bakoitzeko, erantzun zuzen baten balioaren heren bat kenduko da. Erantzun zuriak ez dira zigortuko; beraz, horientatik ez da erantzun egokien kopurutik ezer kenduko.

Ariketa horrek 0 eta 40 bitarteko puntuazioa izango du. Ariketa horretan 20 puntu lortzen ez dituzten hautagaiek hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira.

b) Bigarren ariketa: epaimahaiak horretarako zehazten duen denboran I. eranskinean adierazitako gaiekin zerikusia duten bi kasu praktiko garatu beharko dituzte, idatziz. Ariketa honen gehienezko puntuazioa 60 puntu izango dira (30 puntu, gehienez, kasu praktiko bakoitzeko). Kasu praktiko bakoitzean, gutxienez, 15 puntu lortu beharko dira bigarren ariketa gainditzeko.

Ariketa bakoitzeko kalifikazioak udalaren web orrian argitaratuko dira. Oposizio aldiko proba bakoitza amaitutakoan, epaimahaiak horren behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu, ahalik eta lasterren, eta 10 egun balioduneko epea ezarriko du egokiak diren erreklamazioak formulatzeko. Epe hori bukatzen denean eta, egonez gero, aurkeztu diren erreklamazioak ebazten direnean, epaimahaiak probaren behin betiko emaitzak argitaratuko ditu.

— *Esan behar du:*

Zortzigarrena.— Oposizio aldia

Oposizio aldiak 3 ariketa dauzka (nahitaezkoak eta baztertze indarrekoak):

a) Lehen ariketa: epaimahaiak horretarako zehazten duen denboran aukerako erantzunak dituzten galderen test bati erantzun beharko diote, idatziz. Galderak I. eranskinean adierazitako gaien edukiei buruzkoak izango dira, eta erantzun okerrekin puntu negatiboak jasoko dituzte.

Erantzun oker bakoitzeko, erantzun zuzen baten balioaren heren bat kenduko da. Erantzun zuriak ez dira zigortuko; beraz, horientatik ez da erantzun egokien kopurutik ezer kenduko.

Ariketa horrek 0 eta 40 bitarteko puntuazioa izango du. Ariketa horretan 20 puntu lortzen ez dituzten hautagaiek hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira.

b) Bigarren ariketa: epaimahaiak horretarako zehazten duen denboran I. eranskinean adierazitako gaiekin zerikusia duten bi kasu praktiko garatu beharko dituzte, idatziz. Ariketa honen gehienezko puntuazioa 60 puntu izango dira (30 puntu, gehienez, kasu praktiko bakoitzeko). Kasu praktiko bakoitzean, gutxienez, 15 puntu lortu beharko dira bigarren ariketa gainditzeko.

c) Hirugarren ariketa: euskara. Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa. Euskarazko 3. Hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko da. Proba honen balioespena gai izatea edo ez izatea izango da. Gai ez diren hautagaiak kanporatu egingo dira. 3. hizkuntza eskakizuna edo altuagoa daukatela egiaztatu duten hautagaiek ez dute proba hori egingo.

Ariketa bakoitzeko kalifikazioak udalaren web orrian argitaratuko dira. Oposizio aldiko proba bakoitza amaitutakoan, epaimahaiak horren behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu, ahalik eta lasterren, eta 10 egun balioduneko epea ezarriko du egokiak diren erreklamazioak formulatzeko. Epe hori bukatzen denean eta, egonez gero, aurkeztu diren erreklamazioak ebazten direnean, epaimahaiak probaren behin betiko emaitzak argitaratuko ditu.

Iragarkiaren bestelako edukina mantendu egiten da.

Diman, 2019ko urtarrilaren 23an.— Alkateak, Nekane Intxaurtza Etxebarria